**Txostena**
***Memoria***



## Bizkaiko Tutoretza Erakundea
## *Instituto Tutelar de Bizkaia*

Bizkaiko Tutoretza Erakundea 2000ko urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauaren bidez eratu zen.

BTE Irabazi-asmorik gabeko Foru Enpresa-Erakunde Publikoa da eta honako eskumenok bereganatu ditu:

a) Kode Zibilean ezarritako eran, legez ezgaituta dauden, adinez nagusiak diren eta bizitokia Bizkaiko Lurralde Historikoan duten pertsonen tutoretza eta zaintza burutzea, ezinbestean, epai-agintaritza eskudunak horrela erabakitzen badu eta horretarako ahalmenik ematen badio ebazpen irmo eta behin-betikoaren bitartez. Horretarako epaileak onartu behar du aipatutako Legezko Testuan ezarritako lehentasun-ordenaren arabera beste pertsona fisiko eta juridiko batzuek baztertzen dituztela.

   Horrelako funtzioak epailearen aginduz ezarritako onurabideen markoan garatuko dira. Egiteko hori epai-agintaritza eskudunak hala dekretatzen duenean iraungiko da, halaber.

b) Hala denean, bizitokia Bizkaiko Lurralde Historikoan duten eta ezgaitze-prozesua hasi zaien adinez nagusiak Judizioari begira defendatzea; baita ere, epai-agintaritzak babesik gabe dauden eta ustez ezgai diren pertsonak eta beraien ondarea defendatzeko eta babesteko behin-behineko neurrietan zehazten dituen funtzioak betetzea.

c) Bizkaiko Tutoretza Erakundeak bere tutoretzapean legez dituen heldu ezgaituak gizarteratzeko eta normalizatzeko ekintzak sustatu eta egitea. Horretarako, honakook eman edo erraztu behar ditu: gizarte baliabideak, ezgaituarentzako arreta pertsonala, hura zaintzea, errehabilitatzea

El Instituto Tutelar de Bizkaia, se constituyó por Norma Foral 9/2000 de 31 de octubre de 2000.

El ITB-BTE , en la actualidad Ente Público Empresarial Foral, sin ánimo de lucro, asume las siguientes competencias:

a) El ejercicio inexcusable de la tutela y curatela de las personas mayores de edad incapacitadas legalmente, residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos fijados por el Código Civil, cuando así lo determine y le sea conferida por la autoridad judicial competente por resolución firme y definitiva, siempre y en todo caso en el que medie exclusión judicialmente admitida de aquellas otras personas físicas o jurídicas, que según el orden de prelación establecido en el citado Texto Legal no concurrieren al desempeño de los expresados institutos jurídicos.

   Tales funciones se desarrollarán en el marco de las prerrogativas impuestas por mandato judicial, extinguiéndose o expirando dicho cometido cuando así fuere decretado, de igual manera, por la autoridad judicial competente.

b) La asunción, en su caso, de la Defensa Judicial de los mayores de edad residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia sobre los que se haya iniciado un proceso de incapacitación, así como el ejercicio de cuantas funciones determine la autoridad judicial en medidas provisionales de defensa y protección personal y patrimonial de presuntos incapaces, en situación de desamparo.

c) El fomento y realización de acciones encaminadas a la integración y normalización de los adultos incapacitados legalmente tutelados por el Instituto Tutelar de Bizkaia, facilitando recursos sociales, la atención personal del incapacitado, su cuidado, rehabilitación o recuperación y el

edo suspertzea eta beharrezko maitasuna. Era berean, babestu edo zaintzeko Kode Zibilean ezarritako xedapenetan finkatuta dauden funtzioak bete behar ditu, norberaren eta ondarearen kudeaketa eta osaketarakoa.

d) Bizkaiko Foru aldundiak babestutako babesik gabeko adinez txikien eta tutoretzapekoaren ondasunak administratzea, haien onerako jardunez, zuhurtasunaren eta haien artapenaren eta hobekuntzaren abiaburuen pean, horri buruz Kode Zibilean aipatutako dauden aurreikuspen edo ezarpenekin edo aplika daitezkeen beste Legezko Xedapenekin bat etorririk.

e) Jaraunspenaren likidazioa tramitatzea eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako babesik gabeko adinez txikiak edo babestutako pertsona helduak jaraunsleak diren jaraunspenen eskubideak eta ondasunak administratzea.

f) Gurasoei, senideei eta beste tutore batzuei informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza ematea.

Erakunde publikoa izanda, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkigun partidak, transferentziak eta diru-laguntzak jasotzen ditugu funtsean, baina bestelako finantzaketa-iturriak izan ditzakegu, hala nola, borondatezko ekarpenak, ondasun-etekinak, legatuak... Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren azken finantza kontrolaren eta esku-harmenaren pean egon beharko du beti.

afecto necesario, así como las funciones de gestión y complementación en el orden personal y patrimonial que fijan las disposiciones que al efecto emanan del Código Civil en el ejercicio de la tutela o curatela.

d) La administración de los bienes del/la tutelado/a y de los/las menores/as desamparados/as tutelados/as por la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en su beneficio, bajo los principios de prudencia, conservación y mejora de aquellos, con arreglo a las previsiones contenidas en el Código Civil al respecto, y a cualesquiera otras Disposiciones Legales que fueren de aplicación.

e) La tramitación de la liquidación de la herencia y la administración de los bienes y derechos de las herencias en las que resulten herederas las parsonas mayores tuteladas o las/los menores desamparados/as tutelados/as por la Diputación Foral de Bizkaia.

f) Información, orientación, asesoramiento y asistencia a padres, familiares y otros tutores.

En base al carácter de ente público del Instituto Tutelar de Bizkaia éste se nutre fundamentalmente de las partidas que a tal fin se le asignen en los presupuestos generales de la Diputación Foral de Bizkaia, transferencias y subvenciones, no renunciando por otro lado a otras posibles fuentes de financiación como aportaciones voluntarias, rendimientos de bienes, legados.... y en cualquier caso bajo control financiero último de la intervención de la Diputación Foral de Bizkaia.

## Erakundearen Egitura

Presidentea

Administrazio Kontseilua

## Estructura Organizativa

Presidente

Consejo de Administración

**Bizkaiko Tutoretza Erakundea**
***Instituto Tutelar de Bizkaia***

| | |
|---|---|
| Presidenteordea | Vicepresidente |
| Zuzendari-Kudeatzailea | Director Gerente |
| Arlo Juridikoa – Legelari-aholkularia | Area Jurídica – Letrada Asesora |
| Gizarte Arloa – Gizarte-langilea | Area Social – Trabajadoras Sociales |
| Ekonomi eta Administrazio Arloa-Administrazioko arduraduna eta administrariak. | Area Económico Administrativa-Responsable de Administración y Personal Administrativo |

## Espedienteen bilakaera, 2009-2011

2009ko abenduaren 31n espedienteen banaketa honako hau zen:

1.- Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 799

Tutoretza eta Kuratela espedienteen barruan, beste sailkapen bat egiten dugu, 2009ko ekitaldia ixtean zuten egoeraren arabera.

- Kargua egoitza judizialean onartuta duten Tutela eta Kuratela espedienteak: 730
- Onartu barik dauden Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 54
- Hilda eta aktiboan dauden Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 12
- Karguaren enkaitzea beste tutore batzuei egitearen eraginezko Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 2
- Errekurrituriko izendapena duten Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 1

2.- Defentsa Judizialeko espedienteak: 71

3.- Adin txikikoen Ondasunen Administrazioko espedienteak: 77

## Evolución de los expedientes 2009-2011

A 31 de diciembre de 2009 la distribución de expedientes era la siguiente:

1.- Expedientes de Tutela y curatela : 799

Dentro de los expedientes de Tutela y Curatela hacemos una nueva clasificación en función de la situación en la que se encontraban a cierre del ejercicio 2009.

- Expedientes de Tutela y Curatela con aceptación del cargo en sede judicial: 730
- Expedientes de Tutela y Curatela pendientes de aceptación: 54
- Expedientes de Tutela y Curatela fallecidos y activos : 12
- Expedientes de Tutela y Curatela provenientes de remoción del cargo a otros tutores : 2
- Expedientes de Tutela y Curatela cuyo nombramiento esta recurrido : 1

2.- Expedientes de Defensa Judicial : 71

3.- Expedientes de Administración de Bienes de menores: 77

4.- Ondasunen administraziorako zuhurtasun-espedienteak edo edo Behin-BehinekoTutoretza: 12

2010eko abenduaren 31n espedienteen banaketa honako hau zen:

1.- Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 879

- Kargua egoitza judizialean onartuta duten Tutela eta Kuratela espedienteak: 803
- Onartu barik dauden Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 59
- Hilda eta aktiboan dauden Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 15
- Karguaren enkaitzea beste tutore batzuei egitearen eraginezko Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 2
- Errekurrituriko izendapena duten Tutoretza eta Kuratela espedienteak: -

2.- Defentsa Judizialeko espedienteak: 69

3.- Adin txikikoen Ondasunen Administrazioko espedienteak: 78

4.- Ondasunen administraziorako zuhurtasun-espedienteak edo Behin-BehinekoTutoretza : 19

2011ko irailean aktibo egon diren espedienteak hauek ziren:

1.- Tutela eta Kuratela espedienteak: 942

- Kargua egoitza judizialean onartuta duten Tutela eta Kuratela espedienteak: 876
- Onartu barik dauden Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 53
- Hilda eta aktiboan dauden Tutela eta

4.- Expedientes de medida cautelar de administrador judicial o tutela provisional: 12

A 31 de diciembre de 2010 la distribución de expedientes era la siguiente:

1.- Expedientes de Tutela y curatela : 879

- Expedientes de Tutela y Curatela con aceptación del cargo en sede judicial: 803
- Expedientes de Tutela y Curatela pendientes de aceptación: 59
- Expedientes de Tutela y Curatela fallecidos y activos : 15
- Expedientes de Tutela y Curatela provenientes de remoción del cargo a otros tutores : 2
- Expedientes de Tutela y Curatela cuyo nombramiento esta recurrido : -

2.- Expedientes de Defensa Judicial : 69

3.- Expedientes de Administración de Bienes de menores: 78

4.- Expedientes de medida cautelar de administrador judicial o tutela provisional: 19

El número de expedientes activos a mediados de septiembre de 2011 son :

1.- Expedientes de Tutela y curatela : 942

- Expedientes de Tutela y Curatela con aceptación del cargo en sede judicial: 876
- Expedientes de Tutela y Curatela pendientes de aceptación: 53
- Expedientes de Tutela y Curatela

**Bizkaiko Tutoretza Erakundea**
***Instituto Tutelar de Bizkaia***

Kuratela espedienteak: 12

- Karguaren enkaitzea beste tutore batzuei egitearen eraginezko Tutoretza eta Kuratela espedienteak: 1

- Errekurrituriko izendapena duten Tutoretza eta Kuratela espedienteak: -

2.- Defentsa Judizialeko espedienteak: 73

3.- Adin txikikoen Ondasunen Administrazioko espedienteak: 81

4.- Ondasunen administraziorako zuhurtasun-espedienteak edo behin-behineko tutoretza-espedienteak: 14

## 2012. urterako aurreikuspenak

Hurrengo urteotarako aurreikuspenen arabera, Bizkaiko Tutoretza Institutuak etengabe handituko du ezgaitasun-karguen onarpena, eta horiek orain artekoak baino askoz ere handiagoak izango direla jotzen da.

Oso zaila da zenbatespena egitea baina seguruenik, eta kontuan hartuta gaur egungo joera, esan daiteke 2011eko abenduaren 31n 1.100 espediente baino gehiago egongo dira martxan.

Defentsa Judizialen Espedienteen, Adin Txikikoen Ondasunen Administrazioaren eta kautela-neurrien kasuan, igoera moderatua espero da, 2011. urteko zenbatekoekin alderatuta.

## 2012erako inbertsio aurrekontua

2012erako aurreikusitako aurrekontuaren barruan honako inbertsio hauek sartzen dira:

- Bizkaiko Tutoretza Institutuaren web orria aldatu eta modernizatu egingo dugu; horrela, osoagoa eta eskuragarriagoa

fallecidos y activos : 12

- Expedientes de Tutela y Curatela provenientes de remoción del cargo a otros tutores : 1

- Expedientes de Tutela y Curatela cuyo nombramiento esta recurrido : -

2.- Expedientes de Defensa Judicial : 73

3.- Expedientes de Administración de Bienes de menores: 81

4.- Expedientes de medida cautelar de administración de bienes o Tutela provisional : 14

## Previsiones año 2012

Destacar que las previsiones para los próximos años vaticinan un incremento constante en la asunción de cargos de incapacidad por el Instituto Tutelar de Bizkaia, estimándose que los mismos serán mucho mayores que los habidos hasta la fecha.

Es dificil realizar una estimación , pero es muy probable que dada la actual tendencia , a fecha 31 de diciembre de 2012 se supere ampliamente la cifra de 1.100 expedientes activos.

En el caso de los Expedientes de Defensas Judiciales , Administración de Bienes de Menores y medidas cautelares se estima que el incremento será moderado con respecto a las cifras del año 2011.

## Presupuesto de Inversión 2012

El presupuesto previsto para el año 2012 abarca las siguientes inversiones:

- Modificación de la página Web del Instituto Tutelar de Bizkaia, modernizándola, haciéndola más

izango da.

- Espedienteen Kudeaketa Datu Basea hobetzen jarraituko dugu.
- Bulegoko altzari berriak eta ekipo informatikoak eskuratuko ditugu, batez ere langileriaren arloan aurreikusi diren beharrizanei aurre egiteko.

## 2012erako langileria

Tutoretzetan aurreikusitako hazkunde handiak zaildu egiten du, baldin eta horrekin batera langile kopurua ere handitzen ez bada, tutoretzaren gauzapena; izan ere, tutoretzaren erabilerak behar dituen jarduera zibil ugarietarako langileak behar dira, hori kalitateko bermeekin garatu ahal izateko.

Hori dela eta, gure ustez, 2012ean langile gehiago behar ditu, tutoretza betebeharrak eta Bizkaiko Tutoretza Institutua sortu duen urriaren 31ko 9/2000 Foru Arauan ezarritako gainerako betebeharrak arrakasta-bermeekin betetzeko.

Langileen partidan, gainera, 2012erako Trebakuntza, Prebentzio eta Osasun partida berezia dago aurreikusita.

## Hornidura gastuak

Hornidura gastuen barruan, Bizkaiko Tutoretza Institutua sortu duen Foru Arauak ezarritako helburuak betetzeko partidak jasotzen dira; esate baterako, laguntza zerbitzuak, premiazko laguntzako kanpoko zerbitzuak, tutoretzaren gizarte-laguntzako programak, etab.

## Kanpoko zerbitzuak

Kanpoko zerbitzuen kapituluan, funtsean, honako gastu hauek sartzen dira:

completa y accesible.

- Continuamos con la mejora de la Base de Datos de Gestión de expedientes
- Adquisición de nuevo mobiliario de oficina y equipos informáticos para afrontar las necesidades previstas sobre todo en materia de personal.

## Personal año 2012

El gran incremento previsto de tutelas dificulta si no va asociado a incrementos de personal dificultades en el ejercicio de la tutela debido a que la ingente actividad de orden civil que supone el ejercicio de la tutela requiere de personal para poder afrontarla con garantías de calidad.

Por ello entendemos que se deberá contar a corto plazo con más personal para poder acometer eficazmente los deberes tutelares y demás obligaciones establecidas en la Norma Foral 9/2000 de 31 de Octubre de Creación del Instituto Tutelar de Bizkaia.

En la partida de personal se contempla además para el año 2012 una partida específica en Formación, Prevención y Salud.

## Gastos de Aprovisionamiento

Dentro de los gastos de aprovisionamiento se incluyen partidas encaminadas a atender las finalidades que marca la Norma Foral de creación del Instituto Tutelar de Bizkaia tales como, Servicios de acompañamiento, Servicios externos de atención de urgencia, y programas de apoyo social a Tutelados, etc.

## Servicios Exteriores

Dentro del capitulo de Servicios Exteriores se incluyen básicamente las siguientes gastos:

- Abokatuen eta prokuradoreen Zerbitzu Juridikoaren gastuak, egindako tutoretzen eta Bizkaiko Tutoretza Institutuari esleituriko Defentsa Judizialetako laguntzaren beharrezko lege-laguntza eskaintzeko.
- Publizitate eta Propaganda gastuak.
- Langileen bidaia-gastuak, Bizkaiko Tutoretza Institutuari esleituriko kasuen laguntzarako eta jarraipenerako egiten dituzten irteeretan.

## Erakundearen egoera eta bilakaera

Bizkaiko Tutoretza Institutuaren bilakaerari eta etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko, sozietatearen azterketa egin behar da Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan; maila honetan, demografia, osasun eta gizarte mailako aldaketak egon dira, eta horiek zenbait egoeratan islatu dira; aipagarria da bizi-itxaropenak izandako gorakada ikusgarria; izan ere, biztanleriaren zahartzea gizarte mailako arrakasta handia da, baina batzuetan, horrekin batera, pertsona batzuen gaitasun fisikoak eta psikikoak murriztu egiten dira, eta horrela, handitu egiten da mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua; beraz, horien beharrizanak betetzeko baliabide gehiago behar da.

Pertsona bakarreko etxe gero eta gehiago dagoela, familiak kide gutxiagokoak direla, familia-ereduan aldaketak egon direla eta horien barreiadura geografikoa handiagoa dela aintzat hartuta, tutoretzaren arloan gabiltzan erakunde guztiok gero eta tutoretza-kuratela gehiago hartu behar ditugu.

Zorrotz jokatuz, eskatu behar dugu Kode Zibilak markaturiko lehentasun ordena betetzeko eta geure lanak tutoretza sistemaren bermea izateko, hau da, salbuespena izan behar dugu eta ez

- Gastos de Servicio Jurídico de abogados y procuradores para la cobertura de la necesaria asistencia legal tanto de las tutelas ejercidas asi como de la asistencia en Defensas Judiciales asignadas al Instituto Tutelar de Bizkaia.
- Gastos de Publicidad y Propaganda.
- Gastos de viaje de los y las trabajadores/as en las distintas salidas para atención y seguimiento de los diferentes casos asignados al Instituto Tutelar de Bizkaia.

## Situación y Evolución de la entidad

Para realizar una reflexión acerca de la evolución y el futuro del Instituto Tutelar de Bizkaia, hay que realizar un análisis de la Sociedad en el ámbito del Territorio histórico de Bizkaia, a este nivel se han producido una serie de cambios demográficos, médicos y sociales que tienen su reflejo en una serie de situaciones que se vienen produciendo, destacando el aumento espectacular de la esperanza de vida, el envejecimiento de la población representa un éxito social, pero esto a veces, lleva aparejado que muchas personas vean disminuidas sus facultades tanto físicas como psíquicas, haciendo aumentar el número de personas en situación de dependencia, requiriendo mayores recursos para satisfacer sus necesidades.

Teniendo en cuenta también la existencia de cada vez más hogares unipersonales, menos familias extensas, cambios en el modelo de familia y la mayor dispersión geográfica de las mismas, nos aboca a todas las instituciones que nos dedicamos al ejercicio de la tutela a asumir cada vez mayor número de tutelas-curatelas.

Deberemos ser estrictos en la exigencia de que el orden de prelación que marca el Código Civil se cumpla y que nuestra labor sea la garantía última del sistema de tutela, que seamos la excepción no

araua; izan ere, bestela, gure panorama gehiegi dimentsionaturiko Tutoretza Erakunde batena izan daiteke eta horrek kalte egingo lioke tutoretzaren garapenari; hori, gainera, tutoretzapekoaren kalterako izango litzateke.

Hurrengo urteotarako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta mugaturiko lege-gaitasuna duten pertsonen onean, honako jarduketa lerro hauek ezarri ditugu.

- Erabateko Kalitate sistemaren ezarkuntza, Europako EFQM ereduan oinarrituz, etengabeko hobekuntza ezartzeko, geure jardueraren ardaztzat.

- Tutoretzapeko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekiko lankidetza eta koordinazioa.

- Epaileak eta fiskalak jabearazi egin behar dira, Kode Zibilak ezarritako lehentasun ordenari dagokionez, tutorearen kargua onartzearen aldetik; ordena hori betearazita, erantzuna emango zaio Bizkaiko Tutoretza Institutua sortzean egon zen bokazioari, eta bokazio hori, izatez ere, jarduketa osagarria da, familia inguruko beste pertsona fisiko batzuei dagozkien jarduketen arloan, tutoretza sistema bermatzeko, bertara jo behar baita Kode Zibilaren arabera halako jarduketa garatu behar duten pertsonak ez daudelako edo inhibiturik daudelako.

- Gizarte osoari horren inguruko informazioa eman behar zaio, batez ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, Buruko Osasun Zentroei eta ustezko ezintasuna duten pertsonekin lan egiten duten Organismoei, baita horien familiakoei ere; izan ere jakitera eman behar zaie geure jarduketa subsidiarioa dela familiako batzuek berenganatu behar dituzten

la norma; ya que si no es así, nuestro panorama puede ser el de una Institución Tutelar sobredimensionada, con lo cual se resentiría la calidad en el ejercicio de la tutela, y esto iría en detrimento del tutelado.

Para los próximos años, y en beneficio de las personas con capacidad legal limitada residentes en el Territorio Histórico de Bizkaia, hemos establecido las siguientes líneas de actuación:

- Implantación del sistema de Calidad Total basado en el modelo europeo EFQM para establecer la mejora continua como eje central de nuestra actividad.

- Cooperación y coordinación con otras entidades tutelares, públicas y privadas.

- Concienciación a Jueces y Fiscales de que se cumpla estrictamente el orden de prelación que establece el Código Civil en cuanto a la asunción del cargo de tutor; consiguiendo que se cumpla este orden se podrá responder a la vocación con la que se creó el Instituto Tutelar de Bizkaia, que no es otra, que actuar complementariamente respecto a las actuaciones que corresponden en primer lugar a otras personas físicas del entorno familiar y como garantía última del sistema de tutela a la que acudir ante la inexistencia o inhibición de aquellas personas que conforme al Código Civil estarían obligadas a actuar en consecuencia.

- Informar en el mismo sentido a toda la Sociedad, especialmente a los Servicios Sociales de Base, Centros de Salud Mental, y Organismos que trabajan con personas presuntamente incapaces, así como a los familiares de éstos, que nuestra actuación es subsidiaria respecto a las obligaciones que deben de asumir determinados familiares, que somos la

betebeharrei dagokienez, azken bermea izan arren ez baikara lehenengo aukera.

- Epaileei eta fiskalei tutoretza gainditzera ez mugatzeko eskabidea egin behar diegu, tutoretzaren azken helburua bermearekin betetzeko, hau da, ezgaitua babesteko.
- Herri administrazioak sentsibilizatu egin behar dira, baita gizarte-organizazioak eta gizarte osoa ere, lege-gaitasun mugatua duten adineko pertsonen arazoei eta beharrizanei buruz, horiek hobeto gizarteratzeko.
- Osasunarekiko koordinazioan jardun behar dugu; denok dakigu lotura estua dagoela tutoretzapekoen artean, batik bat buruko gaixotasuna duten eta laguntza espezializatua (psikologikoa edo psikiatrikoa) behar duten pertsonei dagokienez; gure iritzian, beharrezko prozedurak ezarri behar dira tutoretzapean ditugun pertsonen laguntza egokia bermatzeko.
- Ezintasuna edo Buruko Gaixotasuna duten pertsonen arloan lan egiten duten elkarte eta Erakundeekiko koordinazio eta lankidetza bideak ezartzen jarraitu behar dugu.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan zaintza eta kuratela zabaltzea eta hedaraztea eta beste pertsona juridiko batzuen artean sustatzea.

Bizkaiko Tutoretza Institutuak mezu hau igorri nahi dio gizarteari: denon lana da ezintasuna duten pertsonek bizitza duina eta erabatekoa garatu ahal izatea, eta gure erakundeak bermatu egingo du geure organizazioaren tutoretzapeko pertsonek gainerako hiritarren eskubide eta

garantía última,  pero jamás la primera opción.

- Solicitar a los jueces y fiscales que no se limiten a traspasar la tutela, sino que se creen cauces de colaboración en el ejercicio de la misma, para cumplir con garantía el fin último de la tutela, que es la protección del incapacitado.
- Sensibilizar  a las administraciones públicas, a las distintas organizaciones sociales y a la sociedad  en general sobre la problemática y necesidades de las personas mayores de edad con capacidad legal limitada, en orden a lograr una mayor integración  en la sociedad.
- Coordinación con Sanidad, a nadie se le escapa la estrecha relación existente entre los/as tutelados/as, especialmente referido a  las personas con enfermedad mental y la necesidad de atención especializada tanto psicológica como psiquiátrica; entendemos que es necesario establecer aquellos procedimientos que garanticen una atención adecuada hacia las personas que tutelamos.
- Seguir estableciendo cauces de coordinación y  de colaboración con Asociaciones y Entidades que trabajan en el ámbito de las  Personas con Discapacidad o con Enfermedad Mental.
- Diversificar en el Territorio Histórico de Bizkaia el ejercicio de la tutela y curatela fomentándola en otras personas jurídicas.

Desde el Instituto Tutelar de Bizkaia pretendemos transmitir a la sociedad el mensaje de  que es labor de todos y todas  lograr que las personas incapacitadas puedan desarrollar una vida digna y plena, velando nuestra institución para  que las personas tuteladas por nuestra organización

berme berberak dituen bizitza-proiektuak garatu ahal izatea.

Tutoretzek eta kuratelek izandako etengabeko hazkundearen eraginez, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapeko adin txikikoen ondasunen administrazioek izandako gorakaden ondorioz ere, Bizkaiko Tutoretza Institutuak beharrezko baliabide pertsonal eta material guztiak jarri behar ditu tutoretza-eginkizunak berme guztiekin garatzeko, gizarteak horixe eskatzen baitigu.

puedan llevar adelante su proyecto de vida con los mismos derechos y garantías que el resto de los ciudadanos.

El incremento incesante de Tutelas y Curatelas, así como de las administraciones de bienes de menores tutelados por la Diputación Foral de Bizkaia hace que el Instituto Tutelar de Bizkaia deba dotarse de los medios suficientes, tanto personales como materiales para poder afrontar el ejercicio de las funciones tutelares con garantías de calidad, tal como la sociedad nos exige.